



Zipriztintzen elkarteak:

**“Gure Mundua landu
gabe dago”**

Bete da urte erdi Ermuko gizon talde bat emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde lanean hasi zenetik. Helmuga hori lortzeko bide luzea dute aurretik, eta aurreneko pausuetako bat, euren sentimenduen unibertsoa aztertzea litzateke, besteak beste. Eurek diotenez:

“Gizarte honek, gizonak izateagatik ematen dizkigun onura batzuei ezetz esateagatik, ez ditugu tokatzen ez zaizkigun pribilegioak alde batera lagatzen bakarrik, gizon gisa ere, irabazten dugula uste dugu”.

elkarrizketa

- Zenbat denbora daramazue lanean?

Taldea aurtengo ekainean sortu zen, Emakumearen Etxeak antolatutako 'Izaera maskulino berriak eta sexualitate ez zapaltzaileak' izeneko tailer batean parte hartu eta gero

- Norbaitek bultzatu zintuzten?

Ez, denon kontua izan zen. Tailerra martxoa inguruan hasi zen eta bukatutakoan oso interesgarria izan zela ohartu ginen eta gehiago ikasteko gogoia izan genuen. Agian, gauza batzuk landu gabe geratu zirela pentsatu genuen. "Hemen zerbait egin behar da, gure mundua landu gabe dago". Orduan talde txiki bat sortzea erabaki genuen eta apurka-apurka gauzak egiten hasi. Gainera Ibon Arrizabalaga, irakaslea, parte hartzera animatu zen, esan zigunez, ikastaroan oso giro polita zegoelako.

- Zenbat lagunek hartu zenuten parte tailer hartan?

Bada, 15 gizon inguru egon ginen eta horietatik 12 Ziprztintzen ekimenean hasi ginen. Orain lagun gutxiago biltzen gara, baina herriko gizon guztiei deialdia egiten diegu, elkartean parte hartzeko. Onartu behar dugu, hala eta guztiz ere, kide berriak hastea zaila dela, guk dagoeneko ibilbide txikia



egin dugulako, baina datoren urtean beste talde bat sortzea gustatuko litzaiguke, gizon berriekekin osatuta.

- Eta neskarik ez dago zuen taldean?

Ez, guk gizonen ohitura txarrak laga eta aldatu nahi ditugu. Horregatik, emakumeekin harremana izan behar dugula uste dugu, baina beste harreman mota bat. Ez dugu ondo ikusten ezta ere emakumeen talde batean gizonak sartzea, eurek euren lana egiten dutelako emakumeen arloan eta guk gurea egiten dugulako, gizonen arloan.

- Zelan definituko zenukete zeuen burua?

Beti esaten dugu antisexista, profeminista eta maskulinista gara. Gure ustez, diferentzian oinarritutako gizartean bizi gara. Umea jaio aurretik ere, neska edo mutila izango den jakiterakoan, bikotean etorkizunerako itxaropen batzuk sortzen dira. Gero, umeak garenean, heziketa ezberdina jasotzen dugu, neska ala mutilak garen kontutan hartzen delako. Horrela, maskulinitate eta femininitatearen eraikuntza hasieratik dago baldintzatuta, diferentzietan oinarritzen delako. Eta egia esanda, ez gara ezberdinak. Emakume eta gizonen arteko diferentziak bultzatu beharrean, zuri eta beltzen arteko diferentziak bultzatuko bagenitu, jendeak oso gaizki hartuko luke, baina gizonen eta ema-

kumeen arteko diferentziak egiten direnean, inork ez di zu esaten sexista zarenik, hori naturalizat ematen delako. Gu horren kontra gaude, horrexegatik gara antisexistak.

- Profeministak, zergatik?

Emakumeen borroka zuzena dela uste dugu eta horren alde gaude, baina gizonok geure borroka egin behar dugu. Horregatik gara profeministak eta ez feministak. Norabide bera daraman trenaren antzera, baina bakoitza bere bidetik. Punturen batean bide hauek elkartu egin behar dira, baina emakumeek urte asko daramate bide horretan eta guk ez dugu oraindik ia pausurik eman.

- Eta zer adierazi nahi duzue maskulinistak zaretela esaterakoan?

Bada, maskulinitate berriaren bila gaudela. Gizona izateko beste modu bat dagoela

"Emakumeen borroka alde gaude, baina guk gurea egin behar dugu"

ILEAPAINDEGIA
Iraskun
 Goienkale, 9 (Plaza San Martín)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

komunitateak
 aseguruak
San Pelayo
 aholkularitza
 fiskal eta juridikoa
 Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
 San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PUB YOMY

**Zubiaurre
 kalearen
 bihotzean**

uste dugu, ez garelako egungo gizartea menperatzen duen gizon motarekin identifikatzen. Eta hauxe izan zen, hain justu ere, gure taldearen sorrera bultzatu zuen ideia nagusia, gainontzekoak gero etorri ziren.

- Zuen lana elkartetik kanpo dagoen jendeari zuzentzen diozue edo zuen eguneroko bizitzan joerak aldatzea nahi duzue soilik?

Bi alde ezberdin daudela esango genuke. Alde batetik taldea indartu egin nahi dugu eta horretarako formazioa egiten dugu, artikulak irakurtzen ditugu, eztabaidak egin, tailerrak... eta beste alde bat barneko sentimenduak lantzeko erreserbatzen dugu.

- Zein ekintza egin dituzue orain arte?

Batez ere, publizitate kanpainak egin ditugu, oso denbora gutxi daramagulako lanean eta jendeak ezagutzeko bideak behar ditugulako. Santixauetan, adibidez, gure logotipoa zuten ur botilak

saldu genituen, pilota partidu mistoa antolatu genuen, hitzaldia eman genuen Eibarko Udalak eskatuta, San Martin azokan informazio mahai bat ipini genuen Gizonduz plataforma ezagutzera emateko...

- Eta horiek guztiak antolatzeko, zenbatero biltzen zarete?

Normalean hamabostean behin elkartzeko gara, naiz eta behar denean, gehiagotan biltzen garen.

- Zer egiten duzue bilere-tan?

Guretzat oso garrantzitsua da ondo pasatzea. Hasteko jolasak egiten ditugu, deshinibitzeko, gero eztabaidaren bat izaten dugu testuren bat irakurri eta gero eta azkenik ere esperientzia pertsonalak kontatzen ditugu, sentimenduen unibertsoa landu nahi dugulako baita ere. Horrela egituratzen dira orokorrean gure bilerak, nahiz eta batzutan bilera intimistagoak egiten ditugun, beste batzuetan gehiago lantzen dugun teo-

"Gizona izateko beste modu bat dagoela uste dugu"

ria, besteetan ekintzak prestatzen ditugun...

- Zeinek erabakitzen du zer gai jorratuko diren?

Bada, egungo gizartean leku guztietan hierarkia egon behar dela ematen du. Gure kasuan ez dago arduradunik, guztiok nahiko arduratsuak garelako, baina egia da kide batzuk beste batzuek baino gehiago dinamizatzen dutela. Rolak banatuta daude: batzuk komunikazio pertsonala bultzatzen duten jokoetan dira adituak, beste batzuei Interneten testuak bilatzea gustatzen zaie, gero eztabaidak eta elkarrizketak egiteko... Bakoitzaren ezaugarriak eta denboraren arabera egiten dugu lan.

- Eta laguntzarik baduzue?

Emakumearen etxeak erraztasun guztiak ematen dizkigu eta bilerak egiteko gela lagatzen digu. Gainera, Udalak dirulaguntza ematen digu, baina orain dela gutxi hasi garenez, oso dirulaguntza txikia da. Horrez gain, gure ekarpen ekonomikoak ditugu.

- Baduzue harremanik herriko beste taldeekin?

Bai, tratatu onen aldeko plataforman parte hartzen dugu, herri osoko 30 elkarte eta taldeekin batera (kioletakoak, gurasoen elkarteak...). Hala eta guztiz ere, horretan ez dugu talde moduan parte hartzen, kide bakoitza nahi duen neurrian inplikatzeko da.

- Eta Ermutik kanpo zuen antzerako talderik ezagutzen duzue?

Bai, ez dago gure moduko talde asko, baina Ondarrun, Zarautzen, Gasteizen bi, Irun, Bilbo, Altsasun, Portugaleten... badaude taldeak.

- Zeintzuk dira zuen hurrengo proiektuak?

Taldea mantentzea, tailerrak egitea gainontzeko jendearentzat eta herriko gizon ospetsuekin kanpaina bereziren bat egitea.

- Eta bide batez, nondik dator zuen izena?

Ziprztintzen gure asmoaren isla da, hau da, berdintasunean inguruko denak bustitzea.

Dorleta Vidal



Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

Solozabal estankoa



torrekua z/g
Tel/Faxa. 943 17 07 33
fax publikoa

Euskara eta euskaltegia
egin biak zureak



Teresa Murga, 2. solairua
Tel. 943 17 09 25